# b.1. BIDAIA LAGUNAK

## > Joxeren bidaiak

### - Asmatu

**Helburuak**

– Garraiobideen hiztegia ikastea.
– Garraiobideen hiztegia erabiltzea.
– Joxerekin harremanetan egotea.

**Prozedura**

– Jolas honen helburua Joxeren bidaien berri izatea da. Joxek bidaiatzera doan bakoitzean, gutun batean, bere bidaiaren berri eman eta jolas bat proposatuko die umeei: zein garraiobide erabiliko ditu dagokien tokitik helmugara iristeko?
– Pausuak:
  - Hezitzaileak Joxeren gutuna irakurriko du eta bidaia zein den zehaztuko du: nondik-nora joango den esan.
  - Munduko mapa batean abiapuntua eta helmuga markatu.
  - Taldeak egin eta talde bakoitzari munduko mapa bat eta garraiobideen irudiak markatu.
  - Taldeka umeek Joxeren bidaia markatu (asmatzen saiatzea da helburua).
  - Talde bakoitzak beste taldeei asmatutako bidaiaren berri eman.
  - Joxe helmugara iristen denean, bere benetako bidaiaren berri eman.